

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Kea, gasa eta iruzurra

**M**aiatza hartan, 1968koan, harrien azpiko harea aipatu zuten gazteek. Granada lakrimogenoen ke eta gasekin erantzun zien garaiko gobernuak. Kez estali nahi izan zuten mugimendua. Berrogei urteren buruan, gazteei aurre egin zieten horiek mugimendu kultural ederra izan zela goraipatzen ari dira, hedatu zen askatasun haizea izugarrikoa izan zela.

Geroztik egoera kaskartu dela entzuten da. Orduko debateak eta borrokatzeko nahikariak ezabatzen joan dira, Parisko gobernu zentralistaren onerako. Egun ez dago debaterik. Hiri nagusietako auzo txiroetara ehunka polizia igortzen dituzte, atxiloketak egitera, gaez, inseguritatea sortzeko. Interesatzen zaien bake batekin erantzuten dute auzoetan gertatzen diren oldartzei. Arazoak kez eta gasez estaltzen dituzte, gezurrez jositako mezuez, prentsa nagusiaren laguntzarekin.

Hizkuntz gutxituekin berdin jokatzuten dute. 1958tik berrogeita hamalau gehigarri proposamen omen dago. Horrek erakusten digu bederen hizkuntz gutxituez arduratzen diren elkar-teak jarraikiak direla eta presioa atxikitzen badakitela. Aldi honetan benetako proposamena dirudi, nahiz eta oraindik bide luzea egin behar izan praktikara iritsi baino lehen. Konstituzioko 1. artikulua aldatuko dute,



GAIZKA IROZ

legez kanpo gelditzeko arriskutan ziren instituzioetako laguntza guztiak Errepublikaren barnean egon daitezten. Haatik, horrek ez du momentuko Gobernu edo Estatu ezertara behartzen. Alegia herri gutxiuak, gutxietsiak gelditzen direla, Errepublika batu, handi eta askatuaren gibelean geldituko dira. To, ez dugu Alain Lamassoure-en ahotsik entzun! Ez al zuten erran aldaketa zerbait sortuko zuela berak bultzatutako 2. artikulua indarra txikitzeko?

Berriz ere kezko estalkia hizkuntz gutxituek eskatzen duten hizkuntz politikaren eskakizunari erantzuteko. Gobernuak ez du hizkuntz gutxituen aldeko bide berririk jorratuko eta gainera elkar-teen indar kementsua ahultzen entseiatuko da. Gizarte itzalia behar du liberalismoak aurrera joateko, uniformizazioaren lortzeko. Bestalde, Europako instituzioek igortzen dizkieten mezuei erantzuteko kezko estalkia asmatu dute. Arerioaren ahultzeko tramankulu guztiak baliatzen abila da Sarkozy. UMPrentzat, Frantziako hizkuntzek ez dute ezagupenik behar erakustokietan gelditzeko. Hizkuntz politika, instituzioak babestu eta bultzatuko luketena, ofizialtasunaren indarrarekin, ez da Parisko proiektuetan. Parisen politika arazoei itxurazko erantzun bat ematea da. Saihesbidea, iruzurra, aurrean duenaren ahultzeko. ■

Arerioa ahultzeko tramankulu

guztiak baliatzen abila da

Sarkozy. Frantziako hizkuntzek

ez dute ezagupenik behar

erakustokietan gelditzeko

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gabe nago aspalditik. Izan ere, gozatzuten dut biloba zinemara eramaten.

Animaliak, marrazki bizidunak, euskara. Horiek dira maite dituen elementuak zinemara egiteko. Eskelak bezala begiratzen dut egunero zine karteldegia. Etxeko DVDak jada izorratuta dauzkagu, erabilpen ugaz. Asteburu honetan izar bat izan da multigeletan: Indiana Jonesen laugarren filma. Hogeita bost urte joan dira lehena egin zutenetik. Harrison Fordek jada hirurogeita bost urte beteak ditu. Eta argitara eman dituzten zifrak edonor zorabiatzeko adinakoak dira. 300 milioi dolar baino gehiago bildu omen ditu asteburu soilean.

## Aukerarik

3.900 gelatan batera emana izan omen da. Spielberg, Lucas eta Forden Indiana Jones markak orain artean eginiko hiru filmeekin 1.200 milioi dolar fakturatu omen ditu mundu zabalean erakutsita. Azken honekin eta estrainako aste-buruan, Espainian eta Frantzian hiru milioi ikusletik gora hurbildu omen dira takiletara. Sonbrerodun arkeologoak sekulako pagotxa ekarri die egileei eta Paramount produktorari, zinema industria krisian omen dagoen garaioan, yankien arrastoan bizi garen honetan. Bilobak nekez izango du gustuko zinema ikusterik, hel-tzeaz bat ez baldin baditu erdara bikoiztutakoetara zuzentzen bere gogoak. ■